

## Liburu barria

Tolosako "Auspoa" liburutegiak beste liburu bat argitaratu dau. Bere izenburua, "Iturzaeta, Bertsolaria". "Auspoa" sailko 86-87 gn. liburua osotzen da agertutako honekin.

## Patxi Andion kantariak, euskeraz

Patxi Andion, azpeitiarra da. Ogetabi urte ditu, eta Espainiako telebisiñoan kantatu dau sarritan. Berak esanda koetatik dakigu, laster euskeraz kantatzen asiko dala.

## Euskal pintoreen erakusketea, Tolosan

Nestor Basterretxea, Oteiza eta Txilida-k euren lanak agertuko ei dabez Tolosako errian, magnetofono bidez euren lanen azalpenak eginaz.

## Barandiaranen berbaldia, Goierrin

Goierriko "Escuela Profesional"-ean emon eban berbaldi bat Jose Migel Barandiaranek, "Ultimos descubrimientos de la arqueología vasca" izenburuarekin. Entzueleak, eskualde\* haretako jendea eta aipatutako eskolako ikasleak izan ziran.

## Beasain eta Billafrankako Aiuntamentuak eztabaidan Estatuagaz

Beasain eta Billafranka tartean dagoan autobideko tunelean argiak ipintekotan dabiliz, premina aundiko gauzea da ta. Horretarako behar dan dirua, aipatutako erri biak ipini behar ei dabe. Baina erri bietako aiuntamentuak ez dagoz bape konforme neurri horregaz, autobideko tunel hori, eurena barik, Estaduarena da ta.

*Bekelarre*

## Gazteen mezea (Elgoibartik)

Elgoibarko neska-mutilen batzordekoak\*, ba darabile lana nahikoa, datorren abenduaren 8-rako meza ye-ye bat antolatu nahian. Bertan izango ditugu abeslari, soinulari, dantzari, eta abar. Meza honetan erriko gazte guztiok parte artu behar geunke, geure mezea dan ezkeru, nahiz eta gu geu dantzari, abeslari edo soinulari ez izan.

## Mendi giroa

Morkaiko alkartea, dei askori erantzuna emonez, asia dogu goizeko ibilaldiak antolatzen; baina, itxurea danez, lehengo egarria agortu egin da, autobusak erdi utsik joaten dira ta.

*Marixabel Arakistain*

## Gipuzkoako ikastolen federazioa

Azilak\* 9, Loiolako Santuarioan, Gipuzkoako ikastola guztien arduradunak bildurik\*, Federazio bat osotu eben. Goizetik, alkartearen araudia\* eztabaidatu eta aprobaturan. Arratsaldean, lehenengo batzar nagusia egin zan, eta zenbait\* erabagi artu bere bai. Urrats\* inportantea batasun bidean.

## Erandiokoaz

Erandion, gure lagun langile biak eriotzera eroan dituan basatikeria eta zapalketa zital hori kondenatu barik, ezin gaitekez geratu. ANAITASUNA-ko txoko apal honetatik, Eibarko erriaren aserrea agertu nahi dot: Erandioko erriarekin bat egiten dala, bere oinazean. Esan leiteke, erria, asi dala, pixkaka pixkaka, biolentzia zer dan konprenitzen. Gure doluminik bihotzetikoena euren familiai.

## Gizarte-eskolak

Orain urte t'erdi inguru, gizarte-eskolak izenarekin ezagutu genduzan-ikastaldiak, lan eta zeregin inportantea bete eben, arazo sozialei buruz langileak eskolatuaz eta erria kontzienziatuaz. Gaur egunean ez dogu orduko girorik somaten. Zegaitik ez asi barriro?

## Hernani, eredu

Azilak 10, Gipuzkoako Hoja del Lunes-etik barri hau jasotzen dogu: "Euskerazko ikastaldietarako, irurehun personatik gora izan dira, izenak emon dituenak. Kurso hau Aiuntamentuaren babespean egiten da, beronek 100.000 pesetako laguntza emoten daualarik". Eta beste Aiuntamentuak noiz emon behar dabe? Noiz asiko dira, Hernaniko doan bidetik?

## 25 miloi pesetako kreditua «Orbea» kooperatibeari

Azilaren\* 10-ean, eta Don José Miguel Prados Terriente, Lanerako Ministerioaren Gipuzkoako Ordezkaridanaren bitartez, 25 miloi pesetako kreditua emon deutsoe "Orbea" kooperatibeari.

*S. BASAURI*